

# Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak

Euskal Administrazio Publikoko  
langileentzako prestakuntza plana

Azken txostena



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Haur** eta nerabeen aurkako sexu abusuak [Recurso electrónico]: Euskal Administrazio Publikoko langileentzako prestakuntza plana : azken txostena / [zuzendaria, Leire Imaz Zubiaur ; Idoia Fernández Fernández ...(et al.)] – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (40 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

En la cub.: UPV/EHU e IVAP.

ISBN: 978-84-1319-505-6.

1. Abusos sexuales a niños. 2. Personal – Formación – País Vasco. 3. Administración pública.  
I. Imaz Zubiaur, Leire, dir. II. Fernández Fernández, Idoia.

(0.034)364.633-053.5/.6

(0.034)37:35.08(460.15)

## **Zuzendaria**

**Leire Imaz Zubiaur.** Zuzenbide Zibila eta Enpresa Zuzenbideko Saila. «Pertsona, familia eta Ondarea» talde kontsolidatuko ikertzailea.

## **Plana diseinatu, garatu eta ebaluatzeko taldea**

**Idoia Fernández Fernández, y Alba Madinabeitia Ezkurra.** Hezkuntza Zientzien Saila. IkasGura talde kontsolidatuko ikertzaileak.

**Susan Orbe Mandaluniz.** Metodo kuantitaboen Saila. Bilbao Research Team in Economics, BiRTE talde kontsolidatuko ikertzailea.

## **Bulego teknikoa**

**Garazi Arraibi Larrea.** Ikertzaile Kontratatua. Zuzenbide Zibila eta Enpresa Zuzenbideko Saila.

ISBNa: 978-84-1319-505-6

Diseinua eta ilustrazioak: **Belén Moreno Zaldibar**

## AURKIBIDEA


1. Aurkezpena .....	2
2. Testuinguru Orokorra .....	5
3. Emaidza Orokorrak .....	9
4. Ondorioak .....	12
5. Eranskinak .....	15
Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak oinarritzko ikastaroa: begirada bat babesari .....	16
Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak espezializazio ikastaroa: esku-hartze integrala eta sareko lana .....	24

# Aurkezpena



2020ko abenduan, hitzarmen bat sinatu zen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) artean. Hitzarmen horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen esku utzi zen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako prestakuntza-estrategia bat diseinatu eta garatzea, bai eta haur eta nerabeen aurkako sexu-abusuak prebenitu eta artatzea ere. Enkargu horren arrazoia 2020ko Aurrekontuen Legea da, arlo horretako langile publikoen prestakuntzarako partida espezifiko bat jasotzen baitzuen. Eusko Legebiltzarrak, beraz, IVAPi helarazi zion zeregin hori, ulertu baitzuen hura gauzatzeak barnean hartzen zuela indarkeria matxisten eta haurren aurkako sexu-abusuen arloko bi prestakuntza plan diseinatzea eta garatzea.

Urte eta erdi baino gehiagoko lanaren ondoren, aipatutako bi planak diseinatu eta gauzatu, erakundeen enkargu honek emaitza orokor hauek lortu ditu:



1. GRAFIKOA. IVAP/EHUren Hitzarmeneko datu orokorrak

Ikus daitekeenez, irismen luzeko estrategia bat izan da, eta egiaztatu da sektore publikoko 2220 profesionalak 72.815 orduko benetako prestakuntza izan dutela; aurrekaririk ez duen prestakuntza intentsiboko ekimena EAEn.

Enkarguak bi plan independente egitea ezartzen zuenez, emaitzen analisia egiterakoan irizpide horri eustea erabaki dugu. Gauzak horrela, txosten honetan Euskal Administrazio Publikoko profesionalak zuzendutako *Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak* izeneko prestakuntza-planaren azken balantzea aurkeztuko dugu. Plan hori 2021eko martxotik 2022ko uztaila bitartean garatu zen. Horren bidez, azken kontu-emateari erantzun nahi zaio, planaren ezaugarri orokorrei eta inpaktu-emaitza garrantzitsuenei buruzko informazio orokorra eman nahi da, sinatutako hitzarmenean ezarri zen bezala.

Txostena hiru ataletan egituratuta dago: testuinguru orokorra, emaitza globalak eta ondorioak, eta horietan laburbilduta jasotzen dira planaren ezaugarri orokorrak. Ondoren, eranskinean ikastaroa bitan banatzen da: oinarritzko modulua eta espezializazio modulua, bai eta horien emaitza bereizirik ere, lehen zatian garatutako azterketa osatzeko eta sakontzeko aukera ematen dutenak.



# Testuinguru orokorra



Haurren Eskubideei buruzko NBEren 1989ko Konbentzioak paradigma aldaketa ekarri zuen haurren eremuan; izan ere, lehen aldiz, haurrak eskubideen subjektutzat hartzen dira, eta ez soilik babestu beharreko biktimatzat. Horrela, adingabeei helduei aitortzen zaizkien eskubide berberak aitortzen zaizkie, eta, ondorioz, eskubide espezifikoaren titulartzat hartzen hasten dira, haien mendekotasun eta kalteberatasun egoera kontuan hartuta. Pertsona helduak adingabeen erantzule dira, eta, gainera, beren eskubideak betetzen dituztela bermatu behar dute<sup>1</sup>.

Espainiako Estatuak Haurren Eskubideen Konbentzioa berretsi zuen 1990ean, eta adingabeen oinarriko eskubideak erabat errespetatzeko eta bermatzeko konpromisoa hartu zuen. Babes hori, era berean, Nazio Batuen 2030 Agendan berrargitaratzen da, Bakea eta Justizia 16. Garapen Jasangarriaren Helburuan. Hala xedatzen du, berariaz, 2. xedeak, berariaz proposatzen baitu amaiera ematea haurren aurkako tratu txarrei, esplotazioari, salerosketari eta indarkeria eta tortura mota guztiei. Agindu hori betetz, Estatu mailan Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babesteko 8/2021 Lege Organikoa onartu da. Bertan zehazten da haur eta nerabeak artatzeaz arduratzen diren profesionalen indarkerien arloko prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta jarraitua, bultzatzeko eta bermatzeko betebeharra<sup>2</sup>.

Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2020ko martxoan argitaratu zuen «EAEko haur eta nerabeen aurkako indarkeria» izeneko txostena<sup>3</sup>. Txosten horretan nabarmentzen zen beharrezkoa zela genero ikuspegia hezkuntzan txertatzea, berdintasun-politikak bultzatzea eta haurrak eta nerabeak zuzenean artatzen dituzten profesionalak prestatzea. Urte horretan bertan eman zen ezagutzera Nerabeen eta Haurren aurkako Indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia (2022-2025)<sup>4</sup>.

Egia esan, egoera kezkagarria da. Datu ofizialek erakusten dutenez, adingabeen indarkeria salaketak eta detekzioak ugaritu egin dira azken urteotan, bai Estatuan, bai EAEn. Haurren aurkako sexu abusuen intzidentzia tasak gora egin du, besteak beste, Ertzaintzaren datuek erakusten duten bezala; izan ere, 2017an soilik, 224 biktima adingabe erregistratu ziren familatik kanpo jasandako sexu-abusuengatik, eta % 30eko igoera izan da 2016ko erregistroekin alderatuta. Abusu horietako gehienak, ordea, adingabearen familia-zirkuluan gertatzen dira, baina ez dira salatzen. Hamarretik bat bakarrik salatzen da, eta, beraz, indarkeria horren prebalentzia tasa intzidentzia tasa baino askoz handiagoa da. Indarkeria isildua da, ezkutatua. Europako Kontseiluaren arabera, 7 mutikotatik batek eta 4 neskatotatik batek sexu abusuak jasaten dituzte haurtzarosan<sup>5</sup>. Gainera, Save The Children (2017) bezalako elkarteek azaltzen duten bezala, desgaitasunen bat duten haurrek 10 aldiz aukera gehiago dituzte abusuak izateko. Verdugok eta bere laguntzaileek egindako ikerketa baten arabera (2002), bi neskatotatik batek eta desgaitasuna duten hiru mutikotatik batek sexu abusuak jasan dituzte.

1 UNICEF COMITÉ ESPAÑOL: Convención sobre los derechos del niño, Madrid, 2015.

2 [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-9347](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-9347)

3 <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/documentacion/2020/violencia-hacia-ninas-ninos-y-adolescenc-tes-en-la-capv/>

4 <https://www.euskadi.eus/estrategia-vasca-contra-la-violencia-hacia-la-infancia-y-la-adolescencia-2022-2025/web01-a2zeukes/es/>

5 Europako ikerketa-taldeek egindako hainbat azterlanen emaitzen konbinaziotik dator zifra hori, eta bat dator hainbat erakundek aurkeztutako estatistikekin; besteak beste, UNICEF, Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Osasunaren Mundu Erakundea. Iturria: Europako Kontseilua <https://www.coe.int/t/stop-child-sexual-abuse-insport>. Erreferentziatzeko ikerketa bat, López Sánchez, Félix (1995): Abusu sexualak adingabeei: Madril, Gizarte Gaietarako Ministerioa



Administrazio Publikoak arazo horri ematen dion arretak hobetu egin behar du, besteak beste, honako alderdi hauetan: sexu abusuak jasaten dituzten adingabeak artatzen dituzten profesionalen prestakuntza; biktima den haurri entzutea eta abusuaren lekukotzari emandako sinesgarritasuna; esku-hartze, koordinazio eta sareko lanean modu integralean ekitea, eta genero ikuspegiak, dibertsitatea eta kultura aniztasuna sartzea arretan eta esku-hartzean.

Lanbide prestakuntzako eta garapeneko estrategiak tresna eraginkorrak dira hobekuntza prozesuei ekiteko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen prestakuntza planifikatzeko eta antolatzeke irizpide orokorrei buruzko otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuak ezarritako jarraibideei jarraituz, IVAPek eta UPV/EHUK garatutako baterako plan honek 1.067 profesionalak arazo horren ikuspegi orokorra eskuratu dutela egiaztatzea lortu du.

Adierazi dugunez, txosten honetan haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuak prestatzeko planaren azken emaitzak aurkezten dira, eta, horrela, ekimen horren eraginaren ebaluazioa egiteko konpromisoari erantzuten zaio, iritzi itxi eta irekiko inkestekin, arrakasta tasen analisiarekin eta jarraipena eta elkarrizketak eginez. Azpimarratu behar da deialdi bakoitzean ebaluazio partzial kuantitatiboak eta kualitatiboak egin direla, eta horiek informazioa eman dietela IVAPeko eta UPV/EHUKo talde teknikoei, prozesuan hobekuntzak egin ditzaten, ahal den neurrian.

Plan hau egitura modular baten bidez diseinatu da, bi mailatan desberdindua eta online modalitatean:

- OINARRIZKO MODULUA. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuaren ikuspegi orokorra lortzea izan du helburu. Oinarrizko modulua 30 orduko hiru deialditan eman da, bi euskaraz eta bat gaztelaniaz, eta guztira 1.500 lagunentzako edukiera izan du.
- ESPEZIALIZAZIO MODULUA. Haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuaren kasuetan esku-hartze publikoan zuzenean edo zeharka inplikaturik dauden profesionalen premiei erantzutea izan da helburua, osasun, gizarte zerbitzu, hezkuntza, polizia edo arlo judizialek. Kasu honetan ikastaro bakarra eskaini da: Haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuak: esku-hartze integrala eta sareko lana (50 ordu, gaztelaniaz). Izenak adierazten duen bezala, profesionalak elkarrekin eta modu integratuan jardun behar dute sexu-abusuaren kasuetan, biktimen biktimizazioa eta babesgabetasuna saihesteko. Matrikulatzeko gaitasuna 200 profesionalentzako izan da.

Plana garatu den aldian, lau deialdi ireki egin dira izena emateko, parte hartzeko eta deskribatutako oinarrizko prestakuntza modularra eta espezializaziokoa egiaztatzeko:


- 1. Deialdia. Oinarrizko ikastaroa. Martxo-maiatza 2021. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: begirada bat babesari (30 ordu/euskara)
- 2. Deialdia. Oinarrizko ikastaroa. Maiatza-ekaina 2021. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: begirada bat babesari (30 ordu/gaztelera)
- 3. Deialdia. Oinarrizko ikastaroa. Urria-abendua 2021. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: begirada bat babesari (30 ordu/euskara)
- 1. Deialdia. Espezializazio ikastaroa. Apirila-ekaina 2022. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: esku-hartze integrala eta sareko lana (50 ordu/gaztelera).



# Emaitza orokorrak



Emitza orokorrek, plan honen diseinuan ezarritakoaren arabera, prozesuan zehar modu iraunkorrean neurtuz joan diren adierazleen multzo honen bidez aurkezten dira:



**2. GRAFIKOA.** Haur eta Nerabeen aurkako Sexu Abusuen ikastaroko emitza orokorra


(1.) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)

(2.) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.

(3.) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.

(4.) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.

Era berean, parte-hartzaileen prestakuntzarekiko gogobetetze faktoreari buruzko datuak aurkezten dira. Faktore horiek Transferentziaren Zeharkako Ebaluaziorako Faktoreen – FET galdera-sortaren bidez jaso dira, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Pilar Pinedaren taldeak estandarizatuta<sup>6</sup>.



**3. GRAFIKOA.** Gogobetetze Faktorearen emaitzak prestakuntzarekiko (Likert 0-5 eskalan)

<sup>6</sup> Pineda-Herrero, P., Quesada-Pallarès, C., Ciraso-Calí, A. (2020). Factores para la Evaluación indirecta de la Transferencia – FET. Universitat Autònoma de Barcelona. 7<sup>a</sup> edició

# Ondorioak



- I. Haurren eta nerabeen aurkako sexu-abusuei buruzko prestakuntza plana asmo handiko ekimen argitaragabea da, eragin handia duena. Guztira lau deialdi egin dira hamabost hilabeteko epean, eta 1.383 pertsonak parte hartu dute; horietatik 1.067k arrakastaz amaitu dute prestakuntza. Euskal Administrazio Publikoko 1.212 profesionalak egon dira aktibo sentsibilazaziorako oinarrizko ikastaroan, eta horietatik 923k arrakastaz amaitu dute prozesua. Espezializazio mailan, 171k parte hartu dute eta 144k amaitu dute. Hezkuntzaren sektorea izan da gai horretan interes handiena erakutsi duena, eta osasuna, segurtasuna, gizarte-zerbitzuak eta justizia izan ditu atzetik.
- II. Plana asmo handikoa izan da ikaskuntzari dagokionez ere. Bai oinarrizko mailan, bai espezializazio mailan, ikastaroak online garatu dira eta gaitasun profesionalak garatzera bideratu dira, eta, kasu guztietan, ebaluatu eta kalifikatu diren zereginak egiteko eskatu zaie parte-hartzaileei. Beraz, ez dira ikastaroetara joatea egiaztapenaren sinonimo den ikastaroak izan. Diseinu ezaugarri horiek eskakizun maila handia eskatu diete parte-hartzaileei, eta, arrakastatsua izateko, denboraren kudeaketa ona eta benetako inbertsioa egin behar izan dute, ahaleginari dagokionez.
- III. Bete egin dira deialdien kopuruari buruzko aurreikuspenak: oinarrizko mailarako hiru, haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuei buruzko ikastaroarekin: babesera begirako begirada bat eta espezializazioko beste bat, haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuei buruzko ikastaroarekin: esku-hartze integrala eta sareko lana. Hala ere, gauzatzeko epea sei hilabetez luzatu behar izan da, deialdi, hedapen eta matrikula prozedurak berak hasieran aurreikusitakoa baino denbora gehiago behar izan baitu.
- IV. Planak, oro har, 1700 plaza betetzea aurreikusten zuen (1.500 oinarrizko mailarako eta 200 espezializaziokoetarako). IVAPek matrikulatutako pertsonen kopurua kontuan hartuta, okupazioa % 96,17koa izan da, eta horrek agerian uzten du sektore publikoko profesionalen artean piztu den interesa. Hala ere, jarraipen txostenetan adierazi den bezala, etengabe ikusten da IVAPek bidalitako zerrendetan egon arren plataforman behin ere sartu ez diren pertsonen kopurua (erregistratutako matrikulen eta matrikula aktiboen arteko aldea). Nahiz eta baliabide desberdinak erabili diren horiek txertatzeko (UPV/EHuren plataforman sartzeko mezuak eta abisuak) plan honetan 252 pertsona daude egoera horretan. Ez dakigu zergatik galdu den parte-hartzaileen hasierako galera hori eta zer zirkunstantzia egon daitezkeen desbideratze horretan, baina konponbide posibleak erronka bat izan behar du etorkizuneko hedapen eta matrikulazio prozesuetan.

- V. Arrakasta-tasa orokorra positiboa izan da. Ikastaroak hasi dituzten pertsona gehienek amaitu dituzte, eta azken balantzearen arabera, guztira 1.067 profesional akreditatu daude, hau da, % 77,15eko arrakasta tasa. Prestatzaile taldeak kontuan izan du prozesu osoan auto arreta jaso duten online ikastaroek, oro har, bertan behera uzteko duten arriskua; izan ere, denboraren kudeaketa ona eta parte-hartzaileen autodiziplina maila handiagoak eskatzen dituzte. Ildo horretan, hobekuntzak egin dira jardueren diseinuan, askotan parte-hartzaileek iradokita, talde-tutoretzak eta webinarrek gehitu dira eta, oro har, antzeman diren zalantza eta zailtasunei berehalako arreta eman dira. Kasu guztietan, lana amaitzea lortzen ez zuten pertsonen galdetu zaie zergatik utzi zuten lana, eta denak bat datoz norberaren denboraren eta/edo lan-denboraren kudeaketarekin. Hori oso ohikoa da online prestakuntza mota guztietan.
- VI. Parte-hartzaileen batez besteko gogobetetze-maila 5etik 4,5ekoa da. Asko izan dira esker oneko iruzkinak, bai talde prestatzailearen lan zainduari eta arretatsuari buruzkoak, bai ikastaroen kalitateari buruzkoak.
- VII. Espezializazio moduluak berretsi egiten du oinarrizko mailako hiru deialdietan adierazi dena: gaiaren berritasuna, une jakin batean jardun behar izateko egoeran egon daitezkeen profesionalen (irakasleak, osasun langileak) artean dagoen ezjakintasun handia, sentsibilizazioa lankideei eta, oro har, inguruneari zabaltzeko beharra. Parte-hartzaileek segurtasuna irabazten dute horrelako prestakuntzekin eta onartzen dute ikastaroak begiak ireki dizkiela orain arte ikusten ez zuten zerbaiten aurrean. Hobetu beharreko alderdiei dagokienez, Barnahus-en proiektua edo ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babestekoa, bezalako gaiak sakon jorratzea aipatzen da. Alderdi horiek guztiak planari hasiera eman ondoren argitaratu dira, eta kontuan hartu behar dira etorkizuneko edizioetarako.
- VIII. Azken batean, planak oso modu egokian bete ditu bere helburuak. Prestakuntza estrategia handia da, berritzailea planteamendu pedagogikoan, eta parte-hartzaileen interesa eta motibazioa piztu ditu. UPV/EHUK online prestakuntzako azpiegitura teknologiko guztia jarri du planaren zerbitzura, eta erabiltzaileei zuzeneko arreta eman die. Prestakuntza taldeek malgutasunez jokatu dute, taldeetan ikaskuntzaren errendimendu ona bermatu ahal izateko. Aurrerapen ildo gisa, nabarmendu behar da sentsibilizazioa eta espezializazioa areagotu behar direla, hautemateko zaila baita fenomeno hori, eta tabu gehiegi baitaude oraindik haren inguruan. Prestakuntza-ekintza bizi eta zabal batek bakarrik erraztuko du ikusezintasunari buelta ematea eta modu arduratsu eta profesionalean jardutea. Sentsibilizazioa, hezkuntza, prebentzioa eta sareko esku-hartzea modu bizian antolatu behar dira, joera hori irauli nahi bada.





# Eranskina

## Bereizitako txostenak

1

**Oinarrizko maila:**

**HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK:  
BEGIRADA BAT BABESARI**

2

**Espezializazio maila:**

**HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK:  
ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA**



## **FITXA TEKNIKOA**

**Ordu kopurua: 30**

### **HARTZAILEAK**

**HEZKUNTZA:** hala hezkuntza formala haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza, nola ez-formala, adingabeekin zuzeneko harremana baitute: irakasleak, ikasketaburuak, zikloko koordinatzaileak, pedagogia terapeutikoko langileak eta ikas- tetxeetako zuzendariak. Adingabeei harrera egiteko zentroetan lan egiten duten profesionalak.

**OSASUNA:** bereziki, pediatria zerbitzuak, dela lehen mailako arretan dela larrialdi zerbitzue tan edo haur eta nerabeentzako osasun mentaleko zentroetan.

**JUSTIZIA:** mediku forentseak, gizarte langile forentseak, talde psikosozialak eta familiartekoen elkarguneetako arduradunak

**GIZARTE ZERBITZUAK:** nola oinarrizkoak, hala foru aldundietakoak eta Administrazio Orokorrekoak.

**SEGURTASUNA:** indarkeria matxistetan espezializatutako unitateak, nola zentralak hala lokalak.

### **IKASTAROAREN DESKRIBAPENA**

Haurren aurkako sexu abusuari buruzko datuak ikaragarria dira: lau neskatilatik batek eta zazpi mutikoetatik batek sufritzen dute sexu abusua, eta familiakoak edo haurraren konfiantzazko eremukoak dira abusuen % 90a. Hala ere, familia barneko abusu kasuen % 2a baino ez da detektatzen abusua gertatzen den unean; eta horien % 90ean, gainera, ez da auzitara iristen Euskal Autonomia Erkidegoan. Bereziki kezkarriak dira kasu jakin batzuk, non ama salatzailea baita eta aita, berriz, erasotzailea. Horregatik, profesionalek prestakuntza egokia eduki behar dute era horretako abusetan jardun ahal izateko.

Ikastaro honen helburua haurren aurkako sexu abusuari eta horren ondorioei buruzko hausnarketa egitea da; arazoetara hurbiltzea eta kasuen kudeaketan dauden gabezia eta hobekuntza puntu nagusiak identifikatzea.

#### IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- Haurren kontrako sexu abusuaren problematikarako hurbilpena egitea, betiere genero ikuspegia txertatuta: definizioa, mitoak argitzea, erasotzailearen eta bikti maren profila, prebalentzia datuak.
- Haurren aurkako sexu abusuen salaketa bat dagoenean hasten den prozesu judiziala ezagutzea: arlo zibileko eta zigor arloko epaitegia, kasuen oraingo egoera, salaketa kopurua, birbiktimizazioa.
- Sexu abusuak pairatzen dituzten umeen adierazle fisikoetan eta jarrerazkoetan sakontzea, horiei antzemateko eta prebenitzeko prestakuntza ematea helburu.
- Profesionalak haurren aurkako sexu abusuaren aurrean nola jokatu behar duen jakitea, umeari eman beharreko arreta eta ingurune hurbilari eskaini behar zaion arreta komunikatibo eta lagungarria.
- Umeen sexu abusuen aurrean jarduteko gaur egun indarrean dauden protokoloak aztertzea eta gogoeta kritikoa egitea.

#### EDUKIAK

1. Haurren kontrako sexu abusuaren eskubi deen historia eta bilakaera eta horrek egungo egoeran familia barneko abusuaren izan dezakeen eragina ere. Horrez gain, ikerketa berriek eskaintzen dizkiguten datuak ere aztertu dira.
2. Biktimaren egoera emozionala ulertzea. Sexu abusuaren biktimak jasaten duen erakartze eta egokitze-prozesuaren azalpena, eta adituek erasotzailearen eta biktimaren profilari dagokionez deskribatzen dutena. Elementu horiek detekzioarekin lotzea, eta, horrez gain, zer egin behar dugun eta zer ez, profesional gisa, aurki ditzakegun kasuen aurrean.
3. Haurren sexualitatean, adierazleetan eta epe labur eta luzerako ondorio psikologiko eta fisikoetan sartzea (edo halakorik ez izatea), prebentzioaren arloko irizpideak ematez gain.
4. Egoera soziopolitikoaren eta egungo egoera juridiko-instituzionalaren azterketa. Biktima eta babeslea berriz biktimizatzea; ama izan ohi da, eta garrantzi berezia hartzen du erasotzailea aita denean. Kasuak kudeatzeko garaian eragina duten sinesmen patriarkal faltsuak deseraikitzea, biktimak babesgabetasun larriko egoeretan utziz.

#### **METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA**

Ebaluazioa hainbat ekintza eta entregagarriren bidez egiten da.

**EDUKI TEORIKOA.** Haurren aurkako sexu abusuen esparru teorikoa biltzen duen agiria, arazoari buruzko azterlanen irakurketa bibliografikoarekin.

**DOKUMENTAZIOA.** Unitate didaktiko bakoitzak bibliografia bat du, bai eta erreferentziako gaiei buruz sakontzeko baliabide guztiak ere (artikuluak, bideoak, albisteak...).

**FORO PARTE-HARTZAILEA.** Gai bakoitzean foro bat ireki da. Foro horretan artxibo eta dokumentuak partekatu dira.

**TESTA.** Ikasitakoa baloratzeko, unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran ezagutza proba bat egin da. Test hori ezinbestean gainditu behar izan da hurrengo unitate didaktikora igarotzeko.

Lau moduluak amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak amaierako lan bat egin du, haurren aurkako abusu kasu baten aurrean esku hartzeko proposamen batekin.

#### **IRAUPENA**

8 aste.

#### **PLAZA KOPURUA**

Plaza muga kopurua: 500.

Hiru deialdia burutu dira: martxoa-maiatza, maiatza-ekaina eta urria-abendua 2021.

#### **HIZKUNTZA**

Bi deialdi euskaraz eta bat gazteleraz.

#### **PRESTAKUNTZA TALDEA**

Maitane Urizar (koordinatzailea).

## EMAITZA OROKORRAK

MATRIKULAZIOA ETA AKREDITAZIOA	
IVAPek matriculatutakoak	1.438
Matrikulu aktiboak (1)	1.212
Akreditatutako pertsona kopurua (2)	923
SEKTOREKAKO AKREDITAZIOA	
Hezkuntzan akreditatutako pertsona kopurua	344 (% 82,69)
Osasunean akreditatutako pertsona kopurua	214 (% 71,57)
Gizarte Zerbitzuetan akreditatutako pertsona kopurua	103 (% 89,57)
Justizian akreditatutako pertsona kopurua	82 (% 84,53)
Segurtasunean akreditatutako pertsona kopurua	161 (% 85,61)
Besteak	19 (% 13,57)
EMAITZA OROKORRAK	
Arrakasta tasa (3)	% 76,1
Akreditatutako batz besteko nota	8,47
Benetako orduak (4)	27.690
GOGOBEETZEA	
Batazbesteko asebetetzea (5etik)	4,51
HIZKUNTZA	
Euskaraz akreditatu diren ehunekoak	% 61,53

1. TAULA. Oinarrizko ikastaroaren emaitzak. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak

- (1) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.

## ANALISI OROKORRA


Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: begirada bat babesari ikastaroa orokorra eta oinarrizkoa da. 30 orduko lana eskatzen du, eta problematikaren ikuspegi globala garatzea eta eraikitzea du helburu. Fenomenoa, oro har, nahiko ezezaguna da, eta, beraz, prestakuntzak berebiziko garrantzia du biktimen birbiktimizazioa saihesteko.

Ikaskuntza lau bloketan banatutako lanaren bidez planteatzen da. Multzo horiek idatzizko eta ikus-entzunezko euskarriko material espezifikoak dituzte. Era berean, hiru deialdietako bakoitzean bi webinar egin dira zuzenean, alde batetik biktima baten testigantzarekin eta, bestetik, gaian aditua den profesional baten ekarpenarekin. Era berean, ikasturte osoan zehar foroak irekita egon dira, eta parte-hartzaileen eta hezitzaileen arteko ezagutza trukea etengabea izan da.

*Zorionak eman nahi dizkiet ikastaroa eman duten irakasleei. Asko ikasi dut eta material izugarri pila eskuratu dut, nire lanean erabiltzeko oso egokia dena. Indarrak eman dizkit nire lanean haurren sexu abusuaren kontra jarduteko eta orain irizpideak ditut nola egin jakiteko. Oso ikastaro baliagarria izan da. Materialak oso egokiak eta ulerterrazak izan dira. Azken lana oso praktikoa eta baliagarria izan da (Parte-hartzailea/oinarrizkoa/1)*

Oinarrizko ikastaro honetako hiru deialdien batez besteko arrakasta tasa % 76,1ekoa izan da, hau da, 923 pertsonak egin dute azken zeregina, 4 galdetegiaren erantzun zuzenen % 80arekin, eta ekarpenak egin dituzte foroetan. Oinarrizko ikastaroa den arren, dedikazioa eta esfortzua eskatzen ditu, gehiago profesionalen artean oso gutxi ezagutzen den gaia denean, askotan adierazi duten bezala.

Ikasle aktiboak 1212 izan dira, eta, normalean gertatzen den bezala, taldearen aktibazioak behera egin du ikastaroak aurrera egin ahala, nahitaezko zereginak egitea eskatzen den heinean (2. grafikoa). Azkenik, 923 pertsonak entregatu eta gainditu dute azken zeregina, eta, beraz, egiaztatu dute gai horretan oinarrizko gaitasuna dutela. Batez besteko kalifikazioa 8,47koa izan da, eta gogobetetzea bost puntutik 4,51koa.



4. GRAFIKOA. Zereginetikiko akreditatu kopuruaren bilakaera

## 1. ERANSKINA

### HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK OINARRIZKO IKASTAROA: BEGIRADA BAT BABESARI

Zereginak entregatzean eta, ondorioz, ikastaroaren eraginkortasunean izan den beherakada progresiboak badu nolabaiteko justifikazioa, batez ere ikastaroak egin diren datetan. Alde batetik, pandemiak lan eredu berri batera egokitzeko beharra ekarri du, bai osasun arloan, bai hezkuntza arloan. Azken horretan, gainera, bat etorri da ebaluazioarekin, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izan da prestakuntza arrakastaz amaitzeko behar den dedikazioa. Gainera, oinarritzko maila ertaina denez eta deialdietako bi euskaraz egin direnez, pertsona batzuek hizkuntzak ekarri dien zailtasuna helarazi dute.

*La formación ha sido amena y muy interesante pero muy extensa para las horas que corresponden al curso (Partehartzailea/Oinarritzkoa/2)*

Hala ere, gogobetetze-maila handia izan da, prestakuntzarekiko gogobetetze-faktorea osatzen duten itemetan ikus daitekeen bezala (4. taula). Izan ere, hainbatetan 4,5etik gorako balioak izan dira. Ildo beretik, balorazio positibo ugari jaso dira, eta esker ona adierazten zuten eta haurtzaroarekin eta nerabezeroarekin esku hartzen duten lanbide eremuetan prestakuntza inplementatzeko beharra azpimarratzen zuten.

#### Batazbesteko gogobetetzea 4,51

Parte hartu dudana prestakuntza gustatu zait	4.58
Prestakuntza interesgarria izan da	4.65
Prestakuntza eramangarria izan da	4.3
Prestatzaileak lan ona egin du	4.52
Pozik nago jasotako prestakuntzarekin	4.5

#### 2. TAULA. Oinarritzko ikastaroarekiko gogobetezea

Sektoreen araberako intzidentziari dagokionez, oro har, eremu guztietan lortu diren emaitza onak nabarmendu behar dira. Arrakasta tasarik txikiena «besteak» taldetik dator, eta Gizarte Zerbitzuetan eta Segurtasunean, berriz, ikasle gehienek prestakuntza amaitu dute. Nabarmentzekoa da bigarren deialdian Segurtasuneko ikasleen % 100ek ikastaroa arrakastaz amaitu izana, eta bi planetan talde batek egiaztapenen % 100 lortu duen aldi bakarra izan da. Zalantzarik gabe, sektore horrek haurren eta nerabeen aurkako sexu-abusuetan duen inplikazioa nabarmena da.

*Egin dudana ikastaroa «Haur eta nerabeen kontrako sexu - abusuak» izan dela kontuan hartuta, ez nuke nahi ikasitakoa praktikan jarri behar izatea inoiz. Baina begirada aldatzeko balio izan dit, eta inoiz holako kasuren baten aurrean aurkitzen banaiz, egoera aldatzeko eta nire ikaslea babesteko urratsak emateko tresnak eman dizkit. Hala ere, uste dut formakuntza gehiago behar dudala gai honetan. (Partehartzailea/Oinarritzkoa/3)*

## 1. ERANSKINA

### HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK OINARRIZKO IKASTAROA: BEGIRADA BAT BABESARI

Bestalde, pozgarria izan da egiaztatzea sektore batzuetan interesa handitzen joan dela deialdiak errepikatu ahala. Lehenengo deialdian, 19 eta 26 izan ziren, hurrenez hurren, Gizarte Zerbitzuetatik eta Justiziatik etorritako matrikulatu aktiboak; hurrengo deialdietan, berriz, nabarmen igo zen parte-hartzea, 65 eta 41 pertsonara iritsi ziren, hurrenez hurren, eta % 90 inguruko arrakasta-tasak lortu zituzten.

Amaitzeko, adierazi behar da deialdi guztietako matrikula kopuru handiena osasun esparrutik datorrela, baina egia da pertsona horietako askok ez dutela ikasturtea hasten, eta hezkuntzako kolektiboak duela matrikula aktibo gehien. Pandemia eta horrek eguneroko lanean izan dituen ondorioak izan dira, zalantzarik gabe, oztopo nagusiak. Hala ere, egiaztatutako profesional sanitarioen % 71,57k adierazten du arazoari ematen zaion garrantzia.

Hezkuntzaren arloari dagokionez, hezitzaileek hainbat mezu jaso dituzte prestakuntza eta eguneroko lana uztartzeko zailtasuna adierazteko, eskola ingurunean egokitutako normaltasun une batekin eta, behin, azken ebaluazioekin bat etortzeagatik. Kasu horietan, konpromisoak malgutu egin dira eta zereginak entregatzeko datak luzatu egin dira. Ondorioz, % 82,69ko arrakasta lortu da, eta hori oso modu positiboan baloratu behar da.

Lehenengo deialdiko arrakasta-tasa orokorra % 61ekoa izan zen, eta bigarrenean % 80,3ra igo zen. Lehenengoa euskaraz izan zen eta bigarrena gaztelaniaz. Lehen adierazi da, eskakizun maila dela eta, ezinbestekoa dela hizkuntzaren ezagutza egokia izatea ikastaroa arrakastaz jarraitzeko. Dena dela, arrakasta tasarik handiena hirugarren deialdian lortu zen, euskaraz ere egin zena. Horren arrazoia ikasleak prestakuntza egiteko hizkuntza kontrolatu beharraz jabetzea izan zitekeen; izan ere, UPV/EHUK egindako publizitatean adierazten zen komenigarria zela gutxienez B2a edukitzea.

SEKTOREAK	MATR.AKTIBOAK	AKREDITATUAK	ARRAKASTA TASA
HEZKUNTZA	416	344	% 82,69
OSASUNA	299	214	% 71,57
JUSTIZIA	97	82	% 84,53
GIZART.ZERBITZU	115	103	% 89,57
SEGURTASUNA	146	125	% 85,61
BESTEAK	140	36	% 13,57

### 3. TAULA. Sektorekako emaitzak



Laburbilduz, haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuen arloko oinarrizko prestakuntzak harrera bikaina izan du sektore publikoko xede sektoreen artean, partaidetza, arrakasta eta gogobetetze tasak ikusita. Zalantzarik gabe, problematika horrek, nahiz eta komunikabideetan presente egon, prestakuntza handia eskatzen du oraindik, administrazio publikoko profesionalen artean oinarri zientifiko eta profesional sendoarekin. Izan ere, behin eta berriz adierazi dute ikastaroak adingabeei egindako abusuen ikuspegi berri eta birdimentsionatua eman diela. Parte-hartzaileek oso modu positiboan baloratu dute oinarrizko ikastaroaren kalitatea, eta arlo horretan prestatzen jarraitzearen garrantzia azpimarratu dute. Parte-hartzaileen gaitasun eta ohitura digitalak, jarduerak lantzeko kalitate denborak, lan jarduera eta online prestakuntza bateratzeko aukera emango duten data egokiak aukeratzea kontuan hartu behar dira horrelako deialdien irismena handitzeko baldintza hobek sortzeko.

*Egun bizitzen ari garen pandemia egoera dela eta osasungintzako lehen arreta gainkargatuta dagoela ezin ukatu. Halere, HKSA gaia hain garrantzitsua dela ikusita gure lan egiteko moduan prebentzioa lantzen dugunean ikuspegi honi leihoak zabalduz aurretiko lana egin dezakegula uste dut. Hori da Lehen arretaren ardatza osasunaren promozioa eta bizitza estilo arriskutsuen prebentzioa: hemen eragin dezakegu. Nere ingurunean ikastaro honetan jasotako informazio eta hausnarketak zabaltzen ari naiz. Osasungintzan lan egiten dugun profesionalak ardura handia dugu arlo honetan, beste era batera begiratzen eta lan egiten hasi behar dugula uste dut (Partehartzailea/Oinarrizkoa/4)*

## FITXA TEKNIKOA

Ordu kopurua: 50

### HARTZAILEAK

Osasuneko, Hezkuntzako, Justiziako, Gizarte Zerbitzuetako eta Segurtasunetako profesionalak, haur eta nerabeen kontrako sexu abusuen kasuetan zuzeneko esku hartzea dutenak (edo izan dezaketenak) euren kargu.

Ikastaro honetan matrikulatu ahal izateko, «Haurren eta nerabeen kontrako sexu abusua» online ikastaroa gainditua izatea gomendatzen zen.

### IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Ikastaroaren helburua da esku hartzearen alorreko profesionalak esku hartze horri modu integralean heltzeko behar diren tresnak ematea. Hori lortzeko, lehen eskutik ikasi dute parte hartzaileek gaur egun Euskal Administrazio Publikoak adingabeen kontrako abusu kasuei zer-nolako erantzuna ematen dien eta zer erronka, baliabide eta premia dituen. Diagnostiko hori egiteko, duela gutxiko benetako kasuak analizatu dira, profesionalak jarraitu beharreko prozedura gertutik aztertzeko baliagarria izan baita analisi hori. Gainera, egun administrazioek eman ohi duten erantzunaren azterketa eta haren gabezien diagnostikoa Administrazioari hobekuntza proposamenak egiteko baliatu dira, baita zenbait eremutako profesionalen arteko lankidetzak lana sustatzeko ere.

### IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- Haurren kontrako abusuaren kasu batean esku hartzeko beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak identifikatzea eta erabiltzea.
- Administrazioak esku hartzeari ekitekoan eman ohi duen erantzunean non hobetu behar den detektatzea.
- Dauden baliabideak hobetzea, jarduteko prozedura berrien bitartez.
- Profesionalen artean sarean esku hartzea eta lankidetzak sustatuko duten elkarguneak antolatzea.
- Haurrari eta haren gertueneko inguruari entzuteko gaitasunak eskuratzea.

#### EDUKIAK

Lehenik eta behin, parte-hartzaile bakoitzak esku hartzeko eremu bakoitzean jarraitzen diren prozedurak ezagutu ditu, horrela, adingabeei egindako abusu kasu baten aurrean Administrazioak ematen duen erantzunaren ikuspegi orokorra lortzeko.

Biktimaren hurbiltasunean abusia detektatu ondoren (familia, ikastetxea, eskolaz kanpoko jarduera, hurbileko zirkulua), esku hartu behar duten profesionalak adingabea babesteaz arduratzen diren egiturak ezagutu behar dituzte, baita hori egiteko modurik egokiena ere, egoera zehatz bakoitzera malgutasunez eta lasaitasunez egokituz.

Bereziki garrantzitsua da osasun, segurtasun, justizia eta gizarte zerbitzuen artean harremanak eta komunikazio-hodi arinak ezartzea, eta arreta berezia jartzea prozedurak hobetzeari, bereziki judizialari. Era berean, ezinbestekoa da haurrei entzutea eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ebaluatzea arreta indibidualizatu eta kalitatezko horri heltzeko: birbiktimizazioa saihesteko jarraibideak zehaztu behar dira.

Espezializazio ikastaro honetan, benetako kasuak aztertzen dira esku-hartzean adituak diren profesionalekin, alderdi disfuntzionalak aztertuz eta sareko lana barne hartzen duten prozedura berriak proposatuz.

#### METOLOGIA ETA EBALUAZIOA

- I. Ikastaroaren egitura modularra izan da eta horietako bakoitza amaitzean, galdetegiak eta atazak egin dituzte ikasleek.
- II. Bakarkako lana egin ondoren, ikasleak profesional anitzeko taldeetan banatu dira, kasu pratikoak erantzunez sareko lan hori bultzatzen.
- III. Ikastaroko foroan aktiboki parte hartzeko eskatu da, iritziak, esperientziak eta materialak trukatu.

#### IRAUPENA

10 aste.

#### PLAZA KOPURUA

200 pertsona muga zuen deialdi bakarra. Maiatza-uztaila 2022.

#### HIZKUNTZA

Gaztelera.

#### PRESTAKUNTZA TALDEA

Maitane Urizar (koordinatzailea).

## EMAITZA OROKORRAK

MATRIKULAZIOA ETA AKREDITAZIOA	
IVAPek matrikulatutakoak	197
Matrikultatu aktiboak (1)	171
Akreditatuko pertsona kopurua (2)	144
SEKTOREKAKO AKREDITAZIOA	
Hezkuntzan akreditatutako pertsona kopurua	55 (% 91,66)
Osasunean akreditatutako pertsona kopurua	22 (% 73,33)
Gizarte Zerbitzuetan akreditatutako pertsona kopurua	30 (% 85,71)
Justizian akreditatutako pertsona kopurua	6 (% 85,71)
Segurtasunean akreditatutako pertsona kopurua	31 (% 79,49)
EMAITZA OROKORRAK	
Arrakasta tasa (3)	% 84,21
Akreditatuko en batz besteko nota	9
Benetako orduak (4)	7.200
GOGOBEETZEA	
Batzbesteko asebetetzea (5etik)	4,5
HIZKUNTZA	
Euskaraz akreditatu direnenen ehunekoa	% 0

**4. TAULA.** Espezializazio ikastaroko emaitza orokorrak. Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: esku-hartze integrala eta sareko lana

- (1) Ikastaroan parte hartu dutenak (plataformara sartu, bideoak ikusi, ariketak egin...)
- (2) Egin beharreko guztiak ondo burur dituztenak.
- (3) Akreditatutakoak/aktibo daudenak x 100.
- (4) Ordu teorikoen kopurua x akreditatuen kopurua.

## ANALISI OROKORRA

*Haur eta nerabeen aurkako sexu abusuak: esku-hartze integrala eta sareko lana* online ikastaroa espezializazio prestakuntza bat da, eta xede kolektibo gisa ditu eremu jakin batetik esku-hartzearekin lotura zuzena duten profesionalak. Gutxieneko ezagutza maila bat eskatuz abiatu gara, plan honetako oinarritzko ikastaroa egiaztatuz edo esperientziaren bidez egiaztatuz. Hala ere, sexu-abusuen kasuan, profesionalen lotura problematikoa da; izan ere, potentzialki asko dira kasu horiekin topo egin dezaketenak, nahiz eta horietako askok ez dituzten inoiz benetan aurkitu. Beste era batera esanda, taldean esku-hartzean esperientzia jakin bat eta esperientziarik ez duten pertsonak egon dira, eta, beraz, prestakuntza premia eta itxaropen desberdinak dituztenak.

Adierazi dugun bezala, plan honetako ikastaro guztietan IVAPek aukeratu ditu eskatzaileak, eta barne mekanismo propioak ditu plazak esleitzeko eta eskabideak kudeatzeko. Unibertsitateak IVAPek emandako zerrendarekin lan egin du. Hala ere, asko doitu behar dira sarrera profilak eta parte hartzaileen hautaketa, prestakuntza behar profesional erreletara ahalik eta gehien egokitzeke.

Espezializazio modulua zorrotza da, baina parte-hartzaile gehienek gai horri buruz adierazi duten interesari esker, denboraren kudeaketan, zereginen jarraipenean eta ikaskuntzaren autoerregulazioan ohikoak diren oztopoak gainditu ahal izan dira. Ikuspegi integratuak indartu nahi izan dira, profesionalak ikus dezaten ez dituztela bakarrik konpondu behar hautematen dituzten sexu abusuen kasuak, baizik eta sare espezializatu zabal baten parte direla, eta horretaz jabetu behar dutela eta horretan jarduten jakin behar dutela. Erantzukizun partekatu horretaz jabetzea eta kasu horietan jarduera publikoaren ikuspegi orokorra izatea funtsezkoa da.

Espezializazio ikastaroa berritzailea eta anbizio handikoa izan da, bai estaldurari dagokionez, bai barne fakturari dagokionez. Plazen muga 200 izan zen; 197 IVAPen matrikulaziotik bete ziren, eta 171 Unibertsitateko plataforma birtualean aktibatuta ziren; beraz, espezializazio modulua nahiko eraginkorra izan da asistentziari eta atxikitzeari dagokionez. Barne diseinuari dagokionez, ikastarorako dedikazioa 50 lan ordukoa eta dedikazio errealekoa izan zen, material profesional eta espezializatuen irakurketa eta ikaskuntza, galdetegiak, kasu praktikoak eta sar-lana egituratzeko helburua duten zereginak bezalako jardueretan. Hala ere, zenbait pertsonak adierazi dute benetako orduen kopurua, aurreikusitako irakurketa eta jarduera guztiak eginez gero, ezarritakoa baino askoz handiagoa dela. Garrantzitsua da aipatzea espezializazio modulua behin bakarrik eskaini dela eta ez zela alde aurretik pilotatu, eta, beraz, prozesua denbora errealean ebaluatuta soilik egin ahal izan direla doikuntzak. Horregatik, funtsezkoa da hemen aurkezten ditugun ondorioak kontuan hartzea, espezializazio moduluen etorkizuneko edizioei begira.

*El nivel de exigencia ha sido muy alto, muchos casos prácticos, pero las sesiones online de corrección han sido una maravilla, muy muy interesantes. Para alguien de gestión como yo, aunque no lo pueda aplicar en mis tareas diarias ha sido todo un aprendizaje. Muchas gracias (Partehartzailea/Espezializazioa/1)*

### HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

Ikastaroa bost modulutan banatu da, eta lehenengo biak komunak izan dira ikasle guztientzat. Lehenengoan, haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuen kasuetarako araudia eta dauden baliabideak landu ziren. Ezinbestekoa da adingabeekin esku-hartze zuzena duten profesionalak haurrak eta nerabeak babesten dituzten eskubideak ezagutzea, baita abusu kasu bati aurre egin behar diotenean beren lanbidean jarraitu behar dituzten jarraibideez jabetzea ere. Era berean, dauden baliabideak ezagutzea beharrezkoa da hasieratik erantzun eraginkorra emateko.


Bigarren moduluan, desgaitasuna duten pertsonen aurkako abusua aztertu zen. Txosten honen hasieran jaso den bezala, desgaitasuna duten pertsonak hamar aldiz aukera gehiago dituzte abusu jasateko, eta horri gehitzen badiogu zer zailtasun dituzten kontziente izateko eta konfiantzazko pertsona bati gertatutakoaren berri emateko, neskato eta mutiko horien zaurgarritasuna nabarmen handitzen da. Horregatik, beharrezkotzat jo zen errealitate hori esparru profesional guztietan ezagutzea; ikasleek eskertu egin zuten hori, izan ere, egin ziren bi Webinarretan askok bidali zituzten errealitate hori ezagutzearen garrantziari buruzko mezuak.

Lehenengo bi moduluei dagozkien lanak egin ondoren, ikasleak eremuka banatu ziren, foroak erabiliz hainbat kasu praktikoa ebatzi ahal izateko. Ondoren, diziplina anitzeko lau talde eratu ziren, eta sarean lan eginez, kasu praktikoei erantzun behar izan zieten elkargoaren ikuspegi bateratu horretatik. Ikasturte osoan zehar egin diren webinarrak etengabeak izan dira, eta plataforman grabatuta geratu diren 20 zuzeneko eman dira; gainera, foroak irekita egon dira uneoro.

Prestakuntza amaitzeko, ikasleei eskatu zitzaizen identifikatzeko zer zailtasun dituzten beren esparruan abusu kasu baten aurrean jarduteko, eta hobekuntzak proposatzeko problematikaren aurrean erantzun eraginkorra lortzeko.

Ikastaroa konplexua izan den arren, inbertitu beharreko orduak eta online koordinazioaren zailtasunak direla eta, arrakasta tasa oso handia da, % 84,21era iritsi baita, hau da, 144 pertsonak gainditu dute ikastaroa. 3. grafikoan ikusten da maila hirugarren modulutik aurrera mantendu dela, eta lehenengo bi moduluetan jaitsi dela gehien parte-hartzaileen kopurua. Aipatzekoa da, gainera, ikasleek foroetan parte hartu behar izan dutela eta lehen bi moduluetan webinarretara joan behar izan dutela. Zuzenean konektatu ezin izan badira, hausnarketa egin behar izan da. Beraz, eskakizuna nahiko handia izan da, eta lehenengo bi moduluak gainditu dituzten pertsonak guztiz bete dituzte hartutako betebeharrak.

*El curso ha superado las expectativas que podía tener. El tema de que fuera vía online, al haber tenido que asistir fuera de mi horario laboral me facilita el poder acceder a la formación. La formación que haya tenido tanto base teórica como supuestos prácticos ayuda a visibilizar las dificultades para aplicar a veces lo aprendido, pero a la vez te hace reflexionar y compartirlo con otros profesionales, siendo la devolución muy interesante porque llegas a ver aspectos en los que tú te habías detenido (Partehartzailea/ Especializazioa/2)*

HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:  
ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

5. GRAFIKOA. Zereginetikiko akreditatuko en garapena

Gogobetetzea batez bestekoa bostetik 4,5ekoa da, eta hori oso positibotzat hartu behar da horrelako prestakuntza batean. Izan ere, xede taldea talde espezializatu bat denean, igurikimen handia eta espezifikoa du, gai konplexuei erantzuna aurkitzea espero baitute; kasu honetan, gainera, ez gara xede kolektibo batez ari, diziplina anitzeko prestakuntzari aurre egin behar dioten bost kolektibo profesional oso ezberdinez baizik. Askotariko jakintza horien topaketa, sektore anitzeko elkarrizketa eta erantzunak aurkitu nahia tentsio-puntuak dira modulu honetarako. Hala ere, faktorea osatzen duten itemak nahiko konbergenteak eta 4,5ekoak edo hortik gorakoak dira, salbu eta formazioa eramangarria izan bada 4,3 punturekin baloratu dena. Nolanahi ere, batez bestekoa oso altua da.

**Batazbestekoa 4,5**

Parte hartu dudana prestakuntza gustatu zait	4.5
Prestakuntza interesgarria izan da	4.7
Prestakuntza eramangarria izan da	4.3
Prestatzaileak lan ona egin du	4.5
Pozik nago jasotako prestakuntzarekin	4.5

5. TAULA. Espezializazio ikastaroarekiko gogobetezea

Nabarmentzekoa da, ikasleen ekimenez, foroetako batean profesionalen sare bat sortzea proposatu zela, pertsonen artean harreman zuzena izan zezaten, benetako kasu baten aurrean erantzun eraginkorra eman ahal izateko. Pertsona askok baimendu dute ekimen hori, harremanetarako sare hori sortzeko helbidea eta telefonoa kontuan emanda. Kontuan hartu beharreko hobekuntzei dagokienez, prebentzioan sakondu beharreko alderdiak aipatu dira, eta alderdi berrien azterketa sartu da, hala nola Barnahusen proiektua edo ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osoki Babesteari buruzkoa. Gai horiek guztiak edizio berrietan jaso beharko lirake.

HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:  
ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

Sektorekako parte-hartzeari dagokionez, ikastaroaren ebaluazioarekin bat etorri arren, hezkuntza arloak % 91,66ko arrakasta tasa izan du, eta, gainera, matrikula kopuru handiena izan duen kolektiboa izan da, 55 guztira. Egiaztatu ahal izan dugu haur eta lehen hezkuntzako zein bigarren hezkuntzako irakasleen artean sentsibilitatea dagoela adingabeen aurkako sexu abusuak prebenitzeko eta detektatzeko. Gainera, ikastaroan jorratu ez diren baina sare sozialen bidezko sexu jazarpenaren kasua bezalako kezka eragiten dieten gaiak aipatu dituzte. Hezkuntza arloan sentsibilizatzeko prestakuntza estentsiboa, zalantzarik gabe, estrategikoa da, bai eta sexu-hezkuntza integrala indartzea ere, UNESCOren 2018ko orientabideei jarraiki<sup>7</sup>.

*Me gustaría terminar este trabajo agradeciendo vuestro trabajo ya que como exponéis, es un tema del que no se habla lo suficiente, es desconocido y, además, no era consciente de que el problema fuera de tanta trascendencia en cuanto a la gravedad y sobre todo en cuanto a la cantidad de casos. Tendríamos que dedicar más tiempo y más recursos en este tema. De ahora en adelante, mis ojos y mis sentidos estarán más alerta y sabré reconocer (así lo espero) para poder ayudar a que esta lacra tienda a desaparecer de nuestra sociedad. Gracias por hacérmelo llegar (Partehartzailea/ Espezializazioa/3)*

Bestalde, oinarrizko ikastaroen ildo jarraituz, osasun arloko profesionalak dira prestakuntza arrakastaz amaitzeko zailtasun handienak izan dituztenak, gainerako kolektiboekin alderatuz gero. Hala ere, pandemia egoerak kolektibo horretan duen pisua gorabehera, arrakasta tasa % 73,33koa da, eta horrekin sektore horren inplikazio handia dela ulertu behar da. Gaineratu behar da, osasun arloko profesionalen profilean (medikuak, administrariak, erizainak, zeladoreak, laborategiko teknikariak) aldaketa egon dela oinarrizkoekin alderatuz. Oinarrizkoetan denetarikozko profil horiek egin zuten ikastaroa, espezializazio ikastaro hau, aldiz, batez ere mediku eta erizainetara mugatu da eta horrek erakusten du xede kolektibora eraginkortasun handiagoz iritsi direla.

Gainerako sektoreek ere % 80 inguruko tasak dituzte, eta hori bat dator parte-hartzaileek adierazi dituzten ekarpen kualitatiboekin.

SEKTOREAK	MATR.AKTIBOAK	AKREDITATUAK	ARRAKASTA TASA
HEZKUNTZA	60	55	% 91,66
OSASUNA	30	22	% 73,33
JUSTIZIA	7	6	% 87,71
GIZART.ZERBITZUAK	35	30	% 87,71
SEGURTASUNA	39	31	% 79,49

## 6. TAULA. Sektorekako emaitzak

<sup>7</sup> UNESCO (2018). *Orientaciones técnicas internacionales sobre educación en sexualidad: un enfoque basado en la evidencia*. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000265335.locale=es>



## 2. ERANSKINA

### HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU ABUSUAK ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA: ESKU-HARTZE INTEGRALA ETA SAREKO LANA

Laburbilduz, Haurren eta nerabeen aurkako sexu abusuak espezializazio ikastaroak bere helburua bete du: esparru horretan gertatzen diren arau esparruak eta errealitate zehatzak aztertzeko lanbide anitzeko esperientzia garatzea. Parte-hartzaileek adierazi dute gaia gogorra dela, baina, batez ere, sakondu egin behar dela eta sentsibilizazioa eta espezializazioa zabaldu behar direla sektore profesional guztietan. Datu kuantitatibo eta kualitatiboen arabera, espezializazio ikastaroa oso arrakastatsua izan da, bai matrikulazioari, atxikipenari, arrakastari eta parte-hartzaileen gogobetetzeari dagokienez. Hala ere, behin bakarrik eman izanak hazkunde eta doikuntza aukerak kendu dizkio ikastaro zehatz honi. Edizio berrietan, komenigarria litzateke sarbide profila zaintzen jarraitzea, eskolak emateko datak ahal den neurrian lan eta lanbide egoeretara egokitzea, gai berriak sartzeko eta saio presentzialak eta online lana uztartzen dituen prestakuntza-modalitate hibrido batera igarotzea.



**IKERTUZ**

Ikerketa lanak  
Trabajos de investigación

**INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS**

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU  
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus  
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao  
Tfn.: 94 601 2227 • [www.ehu.eus/argitalpenak](http://www.ehu.eus/argitalpenak)

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea